

Hogeita hamasei euskal enpresek parte hartuko dute XXXIII. La Habanako Nazioarteko Ferian-FIHAV

- *Kubak kanpo aldera begira duen erakusleiorik garrantzitsuena da feria hau eta azaroaren 2tik, astelehenetik larunbat arte luzatuko da.*
- *Euskal enpresak Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin parte hartzen duten Sektoreaniztuneko feria bakarra da.*
- *36 euskal enpresak astelehenean bertan inauguratuko den euskadiko pabilioian kokatuko dira.*

Donostia - 2015eko Urriaren 30a - Gipuzkoako Bazkundera buru izanik, Eusko Ganberak Kubara itzuliko dira euskal enpresak Kubako merkatura gerturatzeko asmoz. Euskal Ganberak koordinatutako euskal enpresen parte hartzeak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasunaren saileko laguntza jaso du.

Euskal Ganberak 1999 urtetik antolatzen dute euskal enpresen parte hartzea feria honetan. **Azaroaren 2tik**, astelehenetik, **azaroaren 7 arte**, larunbata arte luzatuko den edizio berri honetan enpresek euren presentzia finkatu nahi dute Kubako erakusleio komertzial garrantzitsuena den honetan, FIHAVen, beraien produktuak erakutsiz. Ferian parte hartuko duten 36 enpresak sektore anitzekoak dira, energia, motoreak, elektrizitate maneiak eta hotel hornikuntza sektoreak nabarmentzen direlarik. Guztiak, astelehenean bertan inauguratu den Euskadiko pabilioian kokatuko dira.

La Habanako feria kontaktu gune bat da. Kubako enpresa garrantzitsu guztiak pasatzen diren gunea da, oso feria egokia beraz herrialdean sartzeko edota bezeroak diren edo izan daitezkeen Kubako enpresa guztiekin kontaktuak berritzeko.

Azken hilabeteetan Kubak enpresen eta gobernuen artean sortu duen interesa begi bistakoa izango da aurtengo feria honetan ordezkari instituzional eta enpresa gehiago bertaratuko baitira.

Kuba aukera berrien merkatua

Kubako ekonomian gaur egun eman nahi den aldaketa handiena kanpoko inbertsoreei irekitzeari lotuta dago eta hauek egunerokoan izango duten eraginari. Estatu Batuekin harreman komertzialak irekitzeak ere eragin berezia izango du gai honetan, nahiz eta hau pixkanaka burutzen joango den.

Aipatzeko da ere Atzerriko Inbertsioen Lege berria, ekonomia dinamizatzeko eta atzerriko inbertsioa erakartzeko proiektu berriei atea ireki dielako, espazio berrien garapenaren sustapenaren bitartez, Mariel Cuba Garapen Gune Berezia den bezalaxe.

2015 urtean Kubako kanpo hazkundera iraunkorra izaten ari da eta zentzu horretan Kubako inportazioak %13,3 hasiko direla aurreikusten da, 17.086 dolarretara iritsiko direlarik. Euskal Autonomi Erkidegokari dagokionez, aurten abuztua arte pilatu den hazkundera 2014ko epe berdinean pilatu zena baino %55 gehiago da. Kubako inportazio guztien bataz besteko hazkunderaren gaintetik dagoen protzentai bat da hau.

Kubara heltzen diren kanpoko inbertsioak honako sektoreetan biltzen dira: oiarrizko industria (energia, meatzaritza eta porlana), turismoa, eraikuntza, industria arina, nekazaritza eta elikadura industria. Espainiako enpresentzat, turismoak eta hoteletarako hornikuntzen kontatuak garrantzitsuak izaten jarraitzen dute (eraikuntza materialak, taldeak, altzariak edota elikadura eta edariak). Espainia Kubaren hirugarren sozio komertziala da Venezuela eta Txinaren atzetik, eta 2015eko datu ofizialek adierazten dutenez BPGk %4ko hazkundera izatera iritsi daiteke, inbertsioaren gorakadan oinarrituta batez ere, %28 ingurukoa izango delarik.

Esportazioak EAetik Kubara

Euskal Autonomi Erkidegoko enpresarien artean Kubak sortzen duen interesa, hauek Kubara egiten dituzten esportazioetan du islada, 2014ean espainiako esportazioen %15a baino gehiago izan baitziren, hare gehiago, Kuba 35. da herrialde bezeroen rankingean eta euskal esportazioen %0,48a suposatzen du.

Esportazioak EAetik Kubara (mila eurotan)

Probintzia	2012	2013	2014	Abuztu arteko datuak	2015	2014	2015/2014
BIZKAIA	68.724,99	67.502,62	56.584,63	BIZKAIA	45.061,44	30.463,84	171,58%
GIPUZKOA	57.913,69	69.904,03	42.260,73	GIPUZKOA	38.194,10	22.260,87	147,92%
ARABA	16.668,60	15.584,43	7.384,71	ARABA	5.747,83	4.383,46	131,13%
GUZTIRA	143.307,29	152.991,08	106.230,06	GUZTIRA	89.003,37	57.108,17	155,85%

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Iruñe Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347